

Iñaki Odriozola

IRAKASLEA

Plangintza da giltza

Filosofiako ikasketak egiten ari nintzela konturatu nintzen zein inportantea zen, edozein arlo aztertze-ko, egoerak arrazionalizatzea. Gizakiak, mundua menperatu eta bere onerako ustiatzeko, behar-beharrezkoa izan zuen, jakintza mitikoa utziaz, ikuspuntu berri hau erabiltzea: egoerak barnean nolakoak diren azertu, harreman eta egiturak azalarazi, eta funtzioak eta helburuak argitu.

Euklidesen geometria izan omen zen arrazionalki antolatutako lehen gaia, orain 2.300 urte. Halere, XVI. mendetik aurrera, zientzia gehienak eratu zirenean, izugarritzko garapena izan zuten, eta XX. mendeko azken urteetan, gizarte aurreratuenetan, denok sinistu izan dugu, eraginkortasunaren izenean, edozein eremu plangintzan eta metodologia zehatzetan oinarritu behar dela.

Gu ere, azkenaldian, halako uholde plangintzazaleak irentsi gaitu, bai enpresa munduan, bai instituzioetan, bai gizartean. Eta hurbiletik ikusi izan ditut euskararen normalkuntza planak, lantegi eta ikas-tetxeetako kalitate planak, plangintza familiarak, kultura, elkarbizitza sustatzekoak, etorkinak hartzeko planak. Hasi norbanakotik eta, mailaz maila, Nazio Batuen Erakunderaino, plan estrategikoak, legislatura planak,



DANI BLANCO

garapen planak, edo urteko edo biurteko planak egiten ari gara.

Baina bada arlo bat, non plangintzaren beharra erabat gaizki ikusia dagoen. Ekonomia da. Kapitalismoak garatu duen merkatu-ekonomiatzar hau plangintzarik gabeko eremua da. Produkzioak ez du zerikusirik gizartearen beharrekin, banaketak, are gutxiago; finantza mundua diru hutsalez gora eta behera dabil, eta aberastasuna pilatu daiteke, neurri gabe, ahal izanez gero.

Baina horrek beste aldea dakar: hiritar behartsu eta justuko talde izugarria, kontsumoan eta ordu extretan harrapatutako langile talde zabala, langabezia kronikoa, enpresari eta konstruktoreetan oinarritutako gizarte desarrollista, espekulatzailen joko zikinak, eta lantzean behin, sistemaren geldiduna –krisia– eta berrantolaketa.

Kapitalismoa, berriz ere, berreraiki nahian ari dira, batzuen zorrak denon artean ordainduaz, itxuraldatu eta hurrengo krisira arte iraun dezan. Zergatik ez ekonomia planifikatu, beste


arlotzuzkiak bezala? Produkzioa, banaketa eta kontsumoa hiritarren beharren arabera antolatzea da arrazionalena. Eta, niretzat, gehiengoari komeni zaiguna. Baina, inork ez du hau aipatu ere egiten. ■



Kapitalismoak garatu duen
merkatu-ekonomiatzar hau
plangintzarik gabeko
eremua da. Produkzioak
ez du zerikusirik
gizartearen beharrekin,
banaketak, are gutxiago

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



ofizioen artean, sastrearena da azken urteotan nabarmendutako bat. Gogoan dut tra-jeak neurri egiten zeneko garaia, estreinatutako aurretik hiru bat aldiz probatzera sastrearengana joan behar genueneko.

Desagertzen joan dira, sukaldariak sortzen diren habaila berean. Valentzian gelditzen da baten bat, oraindik ere bertako politikarien neurri egiteko gauza dena. Berdin dio konkorra edo bizkar okerra izan, ofizialak propio neurri egingo dio estandarra bailitzan. Hori du ofizio horrek berezko abantaila, desegokiena ere publikoki egokia agertzeko arte

Desagertu

hori, okerrera ere itxuraz zuzen agertu dadin. Eta garesti ordaindu beharrekoa paraje horietan doanekoa da, erregaliaren forma hartzen duena. Politikari hauek gastu handiak dituzte azpiegitura pertsonaletan, itxura ondasuna duen ofizio horretan. Eta sastre ofizial horrentzat ez da txikia harrotasuna, bere obra hedabideetan hain gorputz egokietan ikustean. Erregalia dirudiena, inbertsioa du. Ez dirudi zuzena tribunalletara eramatea holako eskuzabalak diren pertsonak, tranpaz eta jukutiaz josita dagoen garaian eredugarriak direnak. *Prêt-à-porter* delakoa nagusi. ■

